

**OTSAILAREN 20KO 2/2023 LEGEA, ARAU-HAUSTEEI ETA USTELKERIAREN AURKAKO BORROKARI BURUZKO
INFORMAZIOA EMATEN DUTEN PERTSONAK BABESTEARI BURUZKOA (2023/02/21EKO BOE)**

1. LABURPEN EXEKUTIBOA

Lege hau onetsita, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2019/1937 Direktiba, 2019ko urriaren 23koa, Espainiako Zuzenbidean sartzen da. Lege horren helburua da 2. artikuluan jasotzen diren ekintza edo ez-egiteren baten BERRI EMATEN duten pertsona fisikoak lege horretan aurreikusten diren prozeduren bidez behar bezala BABESTEIA jasan ditzaketen ERREPRESALIAIETATIK, eta erakundeen INFORMAZIOAREN KULTURA eta INTEGRITATEAREN azpiegiturak INDARTZEA, INTERES PUBLIKOKO mehatxuak prebenitzeko eta detektatzeko mekanismo gisa

Sektore PUBLIKOKO erakunde guztiek eta 50 langiletik gora dituzten sektore PRIBATUKO erakunde eta enpresek (eta haietako batzuek nahiz besteek sortutako ALDERDI POLITIKOEN, SINDIKATUEK, ENPRESA-ERAKUNDEEK eta FUNDAZIOEK, betiere funts publikoak jasotzen edo kudeatzen badituzte) EBren zuzenbidearen arau-hausteak izan daitezkeen ekintza edo ez-egiteei buruz edo arau-hauste penal eta administratibo astunei buruz informatzeko aukera emango duen barneko informazio-sistema bat ezarri beharko dute 2023-06-13a baino lehen. Horrez gainera, informatzaileak babesteko politikak onetsi eta aplikatu beharko dituzte, haien aurkako errepresaliak saihesteko. Beraz, betebeharrak hori duten erakunde eta enpresak behartuta daude 2023-06-13a baino lehen hau egitera:

- INFORMATZAILEA BABESTEKO POLITIKA BAT ONETSI (langileen legezko ordezkariari kontsultatu ondoren) eta erakunde barruan jakitera eman
- Barneko informazio-sistemaren ARDURADUNA izateko pertsona fisiko edo organo kolegiatu bat izendatu, eta dagokion agintaritzaren independenteari jakinarazi.
- Lege horretara egokitutako INFORMAZIO-KANAL bat gaitu, webgunearen hasierako orritik irispidea duena
- BARNEKO INFORMAZIO-SISTEMA KUDEATZEKO PROZEDURA bat onetsi
- INFORMAZIOA eta TREBAKUNTZA eman langileei eta gobernu-/partaidetza-organoei

Legean jasotzen diren aginduak hausten dituzten pertsonentzat (fisikoak nahiz juridikoak) isun handiekiko zehapen-erregimen bat aurreikusten du Legeak.

2. INDARREAN SARTZEA ETA XEDAPEN IRAGANKORRAK

- 12. AZKEN XEDAPENA: INDARREAN SARTZEA: BOEn argitaratu eta hogeiei egunera; hau da, **2023/03/13an**.
- 1. XEDAPEN IRAGANKORRA: Behartuta dauden erakundeek lege horretako aurreikuspenak betetz gaituta dauzkaten BARNEKO komunikazio-sistemak eta haien dagozkien kanalek lege horretako aurreikuspenak betetzeko balio dezakete, betiere hartan ezarritako eskakizunak betetzen badituzte
- 2. XEDAPEN IRAGANKORRA: Barneko informazio-sistemak ezartzeko eta lehendik daudenak egokitzeko gehieneko epea: Lege horren arabera BARNEKO INFORMAZIO-sistema bat eduki behar duten administrazio, organismo, enpresa eta gainerako erakundeek Legea indarrean sartu eta gehienez ere HIRU HILABETEAN ezarri beharko dute (hau da, **2023/06/13a** baino lehen)

3. ZIOEN AZALPENAREN FUNTSA

- Lege hau onetsita, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2019/1937 Direktiba, 2019ko urriaren 23koa, **Espainiako Zuzenbidean sartzen da**
- **HERRITARREN PARTE-HARTZEA** ezinbestekoa da zuzenbidea eraginkorra izan dadin. Lankidetzaren hori, norberari dagozkion betebeharrak **PERTSONALKI eta BEHAR BEZALA BETETA** ez ezik,



KONPROMISO KOLEKTIBOaren bidez ere gauzatzen da, erakunde publiko eta pribatuen funtzionamendu egokiari esker.

- Legea hausten dutenak jazartzearen eta ez-betetzeak ez onartzearen eta isilpean ez gordetzearen KONTZIENTZIA sendotzea.
- LEGEAREN HELBURU NAGUSIA: Harreman profesional baten barruan ordenamendu juridikoaren urratzeen berri ematen duten herritarrak BABESTE

4. APLIKAZIO-EREMU MATERIALA

Lege honek legean bertan jasotzen diren prozedurak erabiliz hauen berri ematen duten pertsona fisikoak babesten ditu:

A. **EUOPAR BATASUNEN KUZENBIDEAREN arau-haustea izan daitekeen edozein ekintza eta ez-egite** (barneko ordenamendu juridikoan duen kalifikazioa kontuan hartu gabe), betiere:

- ✓ **2019/1937 Direktibaren Eranskinean zerrendatzen diren EBko ekintzen aplikazio-eremuan sartzen bada:**

1. Kontratazio publikoa
2. Zerbitzu, produktu eta merkatu finantzarioak eta kapital-zuritzearen eta terrorismoaren finantziarioaren prebentzioa
3. Produktuen segurtasuna eta adostasuna
4. Garraioaren segurtasuna
5. Ingurumenaren babesa
6. Erradiazioetatik babestea eta segurtasun nuklearra
7. Elikagaien eta pentsuen segurtasuna eta animalien osasuna eta ongizatea
8. Osasun publikoa
9. Kontsumitzaileen babesa
10. Pribatutasunaren eta datu pertsonalen babesa eta sareen eta informazio-sistemen segurtasuna

- ✓ **EBren interes finantzarioei eragiten badiete**
- ✓ **Barneko merkatuari eragiten badiote** (barne direla lehiari buruzko arauen eta estatuek emandako laguntzen, sozietateen gaineko zergari buruzko arauen edo onura fiskal bat lortzeko helburuarekin egiten diren jardueren alorreko arau-haustek).

B. **ARAU-HAUSTE PENAL EDO ADMINISTRATIBO LARRIA EDO OSO LARRIA eragin dezaketen ekintzak edo ez-egiteak.** (Kasu guztietan barne hartzen dira Ogasun Publikoari eta Gizarte Segurantzari galera ekonomikoa eragiten diotenak).

Lege horretan aurreikusten den babesa EZ zaie aplikatuko alderdi hauei eragiten dieten informazioei: Informazio sailkatua; medikuntzaren eta abokatutzaren alorreko profesionalen sekretu profesionala babestetik, estatuko segurtasun- eta indar-kidegoen konfidentzialtasun- betebeharretik eta erabaki judizialen sekretutik eratortzen diren betebeharrak; eta informazio sailkatua duten edo isilpekotzat edo erresebatutzat aitortu diren kontratazio-prozedurak eta estatuaren segurtasunerako funtsezkoak diren interesak babesteko segurtasun-neurri bereziekin batera egikaritu behar direnak.

5. LEGEAREN APLIKAZIO-EREMU PERTSONALA

- A. **Sektore pribatuan edo publikoan lan egiten duten eta laneko testuinguru bateko edo testuinguru profesional bateko arau-hausteei buruzko informazioa lortu duten informatzaileak**
- B. **Dagoeneko bukatutako lan- edo estatutu-harreman** baten testuinguruan lortutako arau-hausteei buruzko informazioa publikoki jakinarazten duten **informatzaileak, boluntarioak, bekadunak, prestakuntzako aldiandauden** langileak (ordainsaria jasotzen dutenak eta ez dutenak) eta **lan-harremana oraindik hasi ez dutenak**, baldin eta arau-hausteei buruzko informazioa **kontratuaren aurreko hautaketa- edo negozio-eremuan** lortu bada.
- C. Informatzailea babesteko neurriak **langileen legezko ordezkari** ere aplikatuko zaizkie informatzaileari aholku eta laguntza emateko funtzioak betetzen dituztenean.
- D. Hala badagokio, **hauei ere aplikatuko zaizkie** informatzailea babesteko neurriak:



- zerbitzuak eskaintzen dituen erakundearen esparruan informatzaileari laguntza ematen dioten **pertsona fisikoak**
- **informatzailearekin erlazionatuta dauden** eta errepresaliak jasan ditzaketen **pertsona fisikoak** (lankideak eta senideak)
- **informatzaileari lana ematen dioten pertsona juridikoak** edota laneko testuinguruan edota partaidetza esanguratsua duen beste testuinguru batzuetan informatzailearekin beste edozein motatako harremana duten pertsona juridikoak

6. BARNEKO INFORMAZIO-SISTEMA IZATERA BEHARTUTA DAUDEN ENPRESA ETA ERAKUNDEAK:

- A) **50 langile edo gehiago** kontratatuta dauzkaten sektore PRIBATUKO pertsona FISIKO edo JURIDIKOAK
- B) Zerbitzu, produktu eta merkatu finantzarioaren, kapital-zuritzearen eta terrorismoaren finantziarioaren prebentzioaren, garraio-segurtasunaren eta ingurumen-babesaren esparruan EBren ekintzen aplikazio-eremuan sartzen diren sektore PRIBATUKO pertsona JURIDIKOEN barneko informazio-sistema bat izan behar dute, eta haien araudi espezifikoa bete beharko dute, edozein duten langile-kopurua dutela ere. Kasu horietan, haien araudi espezifikoa arautzen ez diren alderdietan aplikatu beharko da lege hau.
- C) Batzuek nahiz besteek sortutako ALDERDI POLITIKOEN, SINDIKATUEK, ENPRESA-ERAKUNDEEK eta FUNDAZIOEK, betiere funts publikoak jasotzen edo kudeatzen badituzte.
- D) SEKTORE PUBLIKOA osatzen duten erakunde guztiek

1. oharra: BEHARTUTA EZ DAUDEN PERTSONA JURIDIKOEN BORONDATEZ ezarri ahalko dute beren barneko informazio-sistema propioa, zeinak Legean jasotzen diren eskakizunak bete beharko baititu.

2. oharra: Barneko informazio-sistemak erakunde kudeatzaileak berak gaitu ditzake 2. artikuluan ezartzen denaz bestelako edozein komunikazio eta informazio jasotzeko. Hala ere, komunikazio horiek eta haien jasotzaileak Legeak ematen duen babesaren eremutik kanpo geratuko dira.

7. BARNEKO INFORMAZIO-SISTEMA KUDEATZEAREN ARDURADUNA

Behartuta dagoen erakunde bakoitzeko ADMINISTRAZIO- edo GOBERNU-organoa izango da barneko informazio-sistema ezartzearen arduraduna (langileen legezko ordezkariari kontsultatu ondoren), eta datu pertsonalen tratamenduaren ardura ere izango du.

8. BARNEKO INFORMAZIO-SISTEMAREN EZAUGARRIAK

- 2. artikuluan jasotzen diren arau-hausteei buruzko informazioa KOMUNIKATZEKO AUKERA eman beharko du.
- MODU SEGURUAN diseinatu, ezarri eta kudeatu beharko da: INFORMATZAILEAREN eta aipatzen den EDOZEIN HIRUGARRENEN IDENTITATEAREN KONFIDENTZIALTASUNA bermatu beharko du, eta DATUEN BABESA ere bermatu beharko du; baimenik ez duten langileen irispidea eragotzi beharko du.
- IDATZIZKO eta AHOZKO komunikazioak onartu beharko ditu.
- Komunikazio ANONIMOAK aurkezteko eta izapidetzeko aukera ere eman beharko du.
- Enpresako/erakundeko BARNEKO INFORMAZIO-KANALAK INTEGRATU beharko ditu.
- Aurkeztutako komunikazioak erakunde barruan modu ERAGINKORREAN trata daitezen bermatu beharko du.
- INDEPENDENTEA izan beharko du, eta BESTE erakunde batzuetako barneko informazio-sistemekiko BEREIZITA agertu beharko du.
- SISTEMAREN ARDURADUN bat eduki beharko du.
- BARNEKO INFORMAZIO-SISTEMEN PRINTZPIO OROKORRAK eta INFORMATZAILEAREN BABESA azaltzen dituen politika bat eduki beharko du, eta erakundean haren BERRI EMAN beharko da.



- Jasotako informazioak KUDEATZEKO PROZEDURA bat eduki behar du.
- Informatzaileak erakundearen esparruan BABESTEKO BERMEAK ezarri behar dira.

9. **BARNEKO INFORMAZIO-SISTEMA KANPOKO HIRUGARREN BATEK KUDEATZEA.**

Barneko informazio-sistema erakundearen bertan kudeatu ahal da, edo kanpoko hirugarren baten bidez, legean aurreikusten diren baldintzetan. Ondorio horietarako, informazioak jasotzea jotzen da sistemaren kudeaketatzat.

10. **BARNEKO INFORMAZIO-SISTEMAREN ARDURADUNA**

Behartuta dagoen erakunde/enpresako ADMINISTRAZIO- edo GOBERNU-organoak izendatu eta kargugabetu beharko du sistemaren *arduraduna*. Izan liteke:

- PERTSONA FISIKO bat
- edo ORGANO KOLEGIATU bat (organo horretako kideren bati eskuordetu beharko dizkio barneko informazio-sistema kudeatzeko eta ikerketa-espedienteak izapidetzeko ahalmenak).
- Pertsona fisikoaren / organo kolegiatuko kideen izendapenaren eta kargugabetzearen berri eman beharko zaio Informatzailearen Babeserako Agintaritzaren Independenteari, hurrengo 10 egun baliodunen barruan.
- Bere funtzioak modu INDEPENDENTE eta AUTONOMOAN gauzatu beharko ditu erakunde gainerako organoei dagokienez. EZINGO du inolako ARGIBIDERIK jaso bere jardunean, eta bere funtzioak betetzeko beharrezko BALIABIDE PERTSONAL eta MATERIAL guztiak eduki beharko ditu.
- Sektore pribatuari dagokionez: sistemaren arduraduna (pertsona fisikoa) erakunde ZUZENDARI bat izango da, eta erakunde horretako administrazio- edo gobernu-organoarekiko modu independentean beteko du bere kargua, salbu eta erakundearen jardueren izaeratik edo dimentsioagatik ez denean justifikatzen edo baimentzen zuzendari bat izatea sistemaren arduraduna. Halakoetan, lanpostuari edo karguari dagozkion funtzioak sistemaren arduradunaren funtzioekin batera egin ahal izango dira, interes-gatazkak saihesteko ahalegina eginda.
- ARAUAK EDO INTEGRITATE-POLITIKAK BETETZEAREN arduradun bat dagoen erakundeetan, edozein izendapen duela ere, persona hori izendatu ahal izango da SISTEMAREN ARDURADUN, Legean ezartzen diren eskakizun guztiak betetzen baditu.

11. **KANPOKO INFORMAZIO-KANALA**

Pertsona fisiko orok eman ahal izango du lege horren aplikazio-eremuan sartzen diren ekintzen edo ez-egiteen berri Informatzailearen Babeserako Agintaritzaren Independentearen aurrean edo autonomia-erkidegoetako agintaritzaren edo erakunde eskudunen aurrean (bai zuzenean, bai aldez aurretik jakinarazita barneko kanal egokiaren bidez). Informazio hori modu anonimoan ere eman daiteke.

12. **ERREPRESALIAEN DEBEKUA**

Berriaz debekatzen dira lege horretan zehazten denari jarraituz komunikazio bat aurkezten duten pertsonen aurkako errepresaliatzat har daitezkeen ekintzak (barne direla mehatxuak eta errepresalia-saialdiak).

Errepresaliaren kontzeptua: *legeak debekatzen duen edozein ekintza edo ez-egite edo, zuzenean edo zeharka, haiek jasaten dituzten pertsonen laneko testuinguru edo testuinguru profesionalean kontrako tratua eragiten dietenak informatzaile izate hutsagatik edo ezagutarazte publiko bat egiteagatik.*

13. **ERREPRESALIAEN AURREAN LAGUNTZEKO ETA BABESTEKO NEURRIAK**



Hauek dira (37. eta 38. artikulua), laburbilduz:

- Informazio eta aholkularitza oso eta independenteak.
- Agintaritza eskudunen laguntza eraginkorra.
- Laguntza juridikoa mugaz gaindiko prozesu penal eta zibiletan.
- Babes finantzarioa eta psikologikoa.
- Ez da joko informatzaileek informazioa ezagutarazteari buruzko murrizketarik urratu dutenik, betiere eskuratze edo irispide hori ez bada delitua.
- Informatzaileek jasandako kalteei buruz eskumeneko organo baten edo beste agintaritza baten aurrean egiten diren prozeduretan, legearen arabera ezagutarazte publiko bat egin duen edo jakinarazi duen eta kalteren bat jasan duen informatzailearen alde jartzen da froga-zama.
- Prozesu judizialetan, lege honen 3. artikuluan zehazten diren pertsonak ez dute inolako erantzukizunik izango legeak babesten dituen komunikazioak edo ezagutarazte publikoak egiteagatik. Informatzaileek eskubidea izango dute beren deskarguan eta adierazitako prozesu judizialen esparruan ezagutarazte edo komunikazio publiko bat egin izana alegatzeko, betiere arrazoizko motiboak balituzte pentsatzeko komunikazioa edo ezagutarazte publikoa beharrezkoa zela legearen araberrako arau-hauste bat agerian jartzeko.

14. ZEHAPEN-ERREGIMENA

- **Agintaritza zehatzailea:** Informatzailearen Babeserako Agintaritza Independentea, AAI eta autonomia-erkidegoetako organo eskudunak (erakunde bakoitzeko diziiplina-ahalmenei kalterik egin gabe)
- **Subjektu arduradunak:** Lege honen 63. artikuluan arau-hauste gisa jasotzen direnetako edozein ekintza egiten duten PERTSONA FISIKO eta JURIDIKOEI bertan ezarritako zehapen-erregimena dagokie.
- **Isunak:**
 - a) PERTSONA FISIKOAK: 1.001 €-tik 10.000 €-ra (arau-hauste arinak); 10.001 €-tik 30.000 €-ra (arau-hauste larriak) eta 30.001 €-tik 300.000 €-ra (arau-hauste oso larriak).
 - b) PERTSONA JURIDIKOAK: 100.000 €-raino (arau-hauste arinak), 100.001 €-tik 600.000 €-ra (arau-hauste larriak) eta 600.001 €-tik 1.000.000 €-ra (arau-hauste oso larriak).

HORREZ GAINERA (**arau-hauste oso larrietan**), hauek erabaki ahal izango dira: a) kargu-hartze publikoa; b) gehienez ere 4 urteko epean dirulaguntzak eta bestelako onura fiskalak eskuratzeko debekua; c) sektore publikoarekin kontratatze debekua gehienez ere 3 urteko epean.

Arau-hauste oso larriengatiko 600.001 €-ko edo zenbateko horretatik gorako isunak BOEn argitaratu ahalko dira.

Bilbon, 2023ko otsailaren 23an

Gai Juridikoen Zuzendaritza
Mutualia, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduen 2 zenbakiko mutua